LS/ig

**DE-IOH-18/17**
**21-IN**

**Diputatuen Kontseiluak, 2017ko ekainaren 13ko bileran, ondoko ERABAKIA hartu zuen:**

"Abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauak, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorraren aurrerapen agiria (2008-2016) onartzen duenak, 5. artikuluan ezarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoa Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioari haren eskumeneko azpiegituren kostuaren % 33 finantzatzeko.

Horretarako, Garapen Iraunkorreko diputatuaren 2009ko ekainaren 25eko Foru Aginduaren bidez, 126.971.130,00 euroko diru laguntza izenduna eman zitzaion Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioari azpiegituren kostuaren % 33 finantzatzeko, eta, bestalde, eranskinean diru laguntzaren baldintza arautzaileak ezarri ziren.

Geroago, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatuaren 2011ko abenduaren 13ko Foru Aginduaren bidez, diru laguntzaren zenbatekoa aldatu zen –124.778.360,00 euro zen kopuru berria–, eta gastua ere beste modu batera banatu zen; foru agindu hori, era berean, 2013ko urtarrilaren 30eko Foru Aginduak aldatu zuen. Azkenik, 2013ko abenduaren 17ko Foru Aginduaren bidez aldatu egin ziren aipatutako 2009ko ekainaren 25eko Foru Aginduan ezarritako diru laguntza izendunaren baldintza arautzaileak.

Bestalde, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak behar diren erabakiak hartu ditu bere estatutuen arabera eskumenekoak dituen zerbitzuen zati bat kudeatzeko modua aldatzeko. Horri dagokionez, 2016ko martxoaren 22an zenbait tresna juridiko aldatzea onartu zuen, kudeaketaren aldaketa hori funtsatzeko; horien artean, kudeaketa mandatuaren esparru hitzarmena, hondakinen tratamendu eta transferentziarako zerbitzua ustiatzeko araudia eta GHK SAUren estatutuak. Era berean, berariazko zenbait mandatu onartu dira eta, azkenik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuak aldatzeko erabakia onartu zen.

**El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de fecha 13 de junio de 2017, adoptó el siguiente ACUERDO:**

"El artículo 5 de la Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el Documento de Progreso (2008-2016) del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa (2002-2016), estableció el compromiso de la Diputación Foral de Gipuzkoa de financiación al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa del 33% del coste de las infraestructuras en alta que le competen.

Para ello, por Orden Foral del Diputado del Departamento de Desarrollo Sostenible de 25 de junio de 2009 se concedió al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa una subvención nominativa por importe de 126.971.130,00 euros para la financiación del 33 % del coste de las infraestructuras en alta, fijándose así mismo en su anexo las condiciones reguladoras de la subvención.

Posteriormente, por Orden Foral del Diputado de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de fecha 13 de diciembre de 2011 se modificó el importe de la subvención, que se fijó en la cantidad de 124.778.360,00 euros, estableciéndose una nueva distribución del gasto que, a su vez, fue modificada por Orden Foral de 30 de enero de 2013. Finalmente, por Orden Foral de 17 de diciembre de 2013 se modificaron las condiciones reguladoras de la subvención nominativa establecidas en la mencionada Orden Foral de 25 de junio de 2009.

Por otra parte, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa ha adoptado los acuerdos precisos conducentes al cambio de modo de gestión de parte de los servicios que le competen según sus estatutos. En este sentido, con fecha 22 de marzo de 2016 aprobó la modificación de una serie de instrumentos jurídicos para fundamentar dicho cambio de gestión; entre ellos, el Convenio Marco de Encomienda de Gestión, el Reglamento de explotación del servicio de tratamiento y transferencia de los residuos y los estatutos de GHK, SAU. Asimismo, se han aprobado distintas encomiendas específicas, y por último, se adoptó el acuerdo de modificación de los estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

Hala, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, bere helburuak betetzeko eta dituen eskumenak baliatuz, erabaki zuen Gipuzkoako hondakinen balorizazio energetikoko planta eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroko gainerako azpiegiturak finantzatu, diseinatu, eraiki, mantendu eta jardunarazteko jarduketak obra publikoen emakida administratibo baten bidez gauzatuko zirela, zerbitzuaren zeharkako kudeaketa eginez, eta Kontsortzioak berak izapidetuta.

Así, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, para el cumplimiento de sus fines y en el ejercicio de sus competencias, acordó que las actuaciones de financiación, diseño, construcción, mantenimiento y operación de la Planta de Valorización Energética de residuos de Gipuzkoa y demás infraestructuras del Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa, se realizarían mediante una concesión administrativa de obra pública, como una forma de gestión indirecta del servicio, a tramitar por el propio Consorcio.

Ondorioz, Gipuzkoako hiri hondakinen zuzeneko kudeaketa zerbitzua, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eskumenekoa dena, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Sozietate Anonimo Unipertsonalak egitea xedatu zuen erabakia aldatzea adostu zen, eta haren zerbitzuen zorrotik kendu zen aipatutako Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroa –egun Gipuzkoako Ingurumen Gunea deritzona– osatzen duten azpiegiturekin lotutako jarduketak egitea; edonola ere, zenbait mandatu egiteko oraindik zuzeneko kudeaketa tresna izaten jarraitzen du.

En consecuencia, se acordó proceder a modificar el acuerdo que configura a la Sociedad Anónima Unipersonal, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, como forma de gestión directa del servicio de gestión en alta de los residuos urbanos de Gipuzkoa, competencia del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, suprimiendo de la cartera de servicios encomendada la ejecución de actividades vinculadas con las infraestructuras que conforman el citado Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa, actualmente denominado Complejo Medioambiental de Gipuzkoa, aunque manteniendo para diversas encomiendas su carácter de instrumento de gestión directa.

Zorra zatikatzen ari den testuinguru batean, azpiegitura berriak gauzatzeko planteamendu egokiena hori zela pentsatu zen, administrazio publikoen defizit publikoa eta zorpetzea kontrolatzeari buruzko betebeharrak betetze aldera.

Se consideró que este es el planteamiento más correcto para la ejecución de las nuevas infraestructuras en un contexto de desconsolidación del endeudamiento, a efectos de cumplimiento de las obligaciones relativas al control de déficit público y endeudamiento de las Administraciones Públicas.

Gerora, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean (GHHKPO) Gipuzkoako Ingurumen Gunerako ezarritako azpiegiturak eraikitze aldera, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. faserako (GIG-1) azpiegiturak lizitatu eta esleitu dira.

Posteriormente y al objeto de construir las infraestructuras relativas al Complejo Medioambiental de Gipuzkoa previstas en el Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa (PIGRUG) se ha llevado a cabo la licitación y adjudicación de las infraestructuras relativas al Complejo Medioambiental de Gipuzkoa en su fase 1 (CMG- 1).

Azpiegitura horri dagokionez, xedatzen da kontratua 238.866.000 eurokoa izango dela, kontratistaren esku jarritako obren (eta horniduren) balioa soilik barnean hartuta. Bestalde, orain arte Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta haren sozietate instrumentalak 73.572.000 euroko inbertsioak egin dituzte GHHKPOko azpiegituretan, eta egin gabe dauden inbertsioak Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 2. fasearen (GIG-2) eta zenbait obra osagarriren (konexio elektrikoak, gasa, ura, transferentzia estazioak, desjabetzeak eta abar) ingurukoak dira; kalkuluen arabera, inbertsioak 35.000.000 eurokoak izango dira GIG-2rako (I. fasea), 9.500.000 eurokoak GIG-2rako (II. fasea) eta 19.052.000 eurokoak obra osagarrietarako. Beraz, gaurdaino, inbertsioetan

En lo relativo a dicha infraestructura se establece que el contrato, en lo referido únicamente al valor de las obras (y suministros) puestos a disposición del contratista, asciende a un total de 238.866.000 de euros. Por otra parte, hasta esta fecha se han acometido por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y su sociedad instrumental inversiones también referidas a infraestructuras del PIGRUG que ascienden a 73.572.000 euros, encontrándose pendientes a esta fecha las inversiones relativas principalmente al Complejo Medioambiental de Gipuzkoa en su fase 2 (CMG- 2) y obras auxiliares varias (conexiones eléctricas, gas, agua, estaciones de transferencia, expropiaciones, etc.), por importe estimado de 35.000.000 euros respecto al CMG-2

kalkulatutako zenbatekoaren guztizkoa 375.990.000 eurokoa da, eta horren % 33, berriz, 124.077.000 euro dira.

(fase I), 9.500.000 euros del CMG-2 (fase II) y 19.052.000 euros en relación a obras auxiliares. Por consiguiente, a esta fecha, el importe total previsto de inversiones asciende a la cifra de 375.990.000 euros, suponiendo el 33% un importe de 124.077.000 euros.

Bestalde, aurrez aipatutako aldaketek eragindako egoera berriaren aurrean Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioarekiko hartutako konpromisoak egokitze aldera, abenduaren 23ko 8/2016 Foru Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2017. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, aldatu egin du abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren 5. artikulua, arau horretan jasotako konpromisoak indarrean jarrai dezan; konpromiso hori arauaren hitzaurrean xedatzen da: "Foru Arau honek ezartzen du, era berean, Foru Aldundiak finantzatuko duela plangintzan onartzen diren hondakinak bideratzeko azpiegituren kostuaren % 33".

Por otra parte y al objeto de acomodar los compromisos adoptados por la Diputación Foral con respecto al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa ante la nueva situación planteada por los cambios anteriormente señalados, la Norma Foral 8/2016, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2017, ha modificado el artículo 5 de la Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, al objeto de seguir manteniendo en vigor el compromiso recogido en el preámbulo de dicha norma cuando señala: "La presente Norma Foral contempla también la financiación por parte de la Diputación Foral del 33 por ciento del coste de las infraestructuras en alta recogidas en la planificación que se aprueba".

Aldaketaren ondoren, 5. artikuluaren testua honako hau da:

*"1. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari bere eskumenekoak diren eta Foru Arau honetako plangintzan jasotzen diren azpiegituren kostuaren % 33ren pareko zenbatekoan finantzatuko dio Gipuzkoako Foru Aldundiak.*

*2. Kontsortzioari finantzatzeko % 33ko muga kalkulatzeko, Foru Arau honetan aurreikusitako azpiegituren balio osoa hartuko da kontuan."*

Tras la modificación, el texto del artículo 5 es el siguiente:

*"1. La Diputación Foral de Gipuzkoa financiará al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa con una cuantía equivalente al 33% del coste de las infraestructuras en alta que le competan recogidas en la planificación aprobada mediante la presente norma foral.*

*2. A efectos del cálculo del 33%, límite de financiación al Consorcio, se tendrá en cuenta el valor de las infraestructuras previsto en la presente Norma Foral."*

Orain arte, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak azpiegituretan egindako inbertsioei dagokienez bere egin dituen kostuei aurre egiteko, Foru Aldundiak, bere konpromisoa betetzeko eta foru arauak berak ezartzen zituen aurrekontuko kredituen arabera, 46.998.000,00 euro ordaindu ditu guztira diru laguntza gisa. Zenbateko hori Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bere sozietatean egindako inbertsioengatik justifikatutako azpiegituren balioaren % 33 baino nabarmen txikiagoa da.

Hasta esta fecha, con la finalidad de hacer frente a los costes asumidos por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en relación con las inversiones efectuadas en infraestructuras, la Diputación Foral, al objeto de cumplir con su compromiso y en virtud de los créditos presupuestarios que la propia norma foral establecía, ha abonado un importe total de 46.998.000,00 euros en concepto de subvenciones, cantidad notoriamente inferior al 33% del valor de las infraestructuras, que ha sido justificada por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa al haberse destinado a inversiones de su sociedad.

Horrenbestez, orain arte diruz lagundutako inbertsioak 7/2008 Foru Arauaren 5. artikuluaren testu berrian jasotako konpromisoan sartuko dira; alegia, GHHKPOn jasotako azpiegituren balioaren % 33 finantzatzeko konpromisoan.

Por consiguiente, procede afectar las inversiones subvencionadas hasta la fecha al compromiso previsto en la nueva redacción del artículo 5 de la Norma Foral 7/2008 de financiar el 33% del valor de las infraestructuras incluidas en el PIGRUG.

Testu berriak indarrean mantentzen du foru aldundiak hartutako konpromisoa, baina ez du % 33 hori finantzatzeko betebehar horren guztizko zenbatekoa zehazten. Hala ere, 2017ko ekitaldi honetarako onartutako aurrekontuko partiden artean bada, horretarako, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren partida bat, 6.000.000 €-koa, 110. programaren barruan (Hondakinak eta hondartzak), 761.02 azpikontzeptuan, indarrean dagoen foru plangintzan jasotako hondakinen goi-kudeaketako azpiegiturak finantzatzeko helburua duena.

La nueva redacción, aunque mantiene en vigor el compromiso asumido por la Diputación Foral, no establece una cuantificación total de la obligación de financiación del 33% asumida, si bien en los presupuestos aprobados para este ejercicio 2017 se ha consignado en el del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas una partida presupuestaria a tal efecto por importe de 6.000.000 €, dentro el programa 110 (Residuos y Playas), subconcepto 761.02, destinado a financiar las infraestructuras de residuos en alta recogidas en la planificación foral vigente.

3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 20.3.c) eta 27. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, eta ezinezkoa denez lehia sustatzea diru laguntza emateko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari baitagokio hondakinen azpiegiturak eraikitzeko eskumena, egiaztaturik diru laguntzak lortzeko eta kobratzeko baldintzak betetzen direla, gogoan hartuz abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauan ezarritakoa bete behar dela eta, Diputatuen Kontseiluak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuaren proposamenari erantzunez eta gaia eztabaidatu ondoren,

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 20.3.c) y 27 de la Norma Foral 3/2007 de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y ante la imposibilidad de promover la concurrencia para la concesión de la subvención, por cuanto la competencia para la construcción de las infraestructuras de residuos en alta corresponde al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, acreditado que se cumplen los requisitos exigidos para la obtención y cobro de subvenciones, considerando la necesidad de cumplir con lo establecido en la Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas y previa deliberación,

**ERABAKI DU**

**Lehenengo.-** Onartzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari sei milioi (6.000.000,00) euroko diru laguntza bat zuzenean ematea, bere eskumenekoak diren azpiegiturak finantzatzeko, abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren bidez onartutako plangintzan jasoak, finantzatzeko, eta diru laguntzaren baldintza arautzaile berriak ezartzea, horiek Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren gaur egungo egoera juridikora eta antolaketaren arlokora egokituta; baldintza horiek erabaki honen eranskinean jasota daude.

**Bigarren.-** Baimentzea eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren alde xedatzea diru laguntza horri dagokion gastua, aurrekontuko partida honen kontura: 1.0910.110.761.02.02.2017.

**Hirugarren.-** Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea akordioa betetzeko egokiak diren jarduera, erabaki eta ebazpen guztiak egin edo hartzeko.

**ACUERDA**

**Primero**.- Aprobar la concesión directa de una subvención por importe de seis millones de euros (6.000.000,00) al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa con la finalidad de financiar las infraestructuras en alta que le competen, recogidas en la planificación aprobada mediante la Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, y establecer las nuevas condiciones reguladoras de la subvención, adecuadas a la actual situación jurídico-organizativa del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, que se recogen en el documento anexo al presente acuerdo.

**Segundo**.- Autorizar y disponer en favor del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el gasto correspondiente a dicha subvención, con cargo a la partida presupuestaria 1.0910.110.761.02.02.2017.

**Tercero.-** Facultar al diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones resulten convenientes para su cumplimiento.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesdunek Donostian dauden Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, BI HILABETEKO epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikular interesdunek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, HILABETEKO epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke."

Jakin dezazun eta ondorioetarako adierazten dizudana.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso–Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICION ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente."

Lo que le comunico para su conocimiento y efectos oportunos.

Donostia, 2017ko ekainaren 14a / San Sebastián, 14 de junio de 2017

**IDAZKARI TEKNIKOA, / LA SECRETARIA TÉCNICA,**

**Izp. / Fdo.: Lourdes Sanjuán Artegain**

**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA / CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA.-**
(G20960183)

**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOARI BERE ESKUMENEKOAK DIREN AZPIEGITURAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZA ZUZENEAN EMATEAREN BALDINTZA ARAUTZAILEAK**

**LEHENENGOA.-** Diru laguntza honekin finantzatuko diren inbertsioak Hondakinen Kontsortzioak edo haren sozietate instrumentala den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk gauzatutakoak izango dira.

**BIGARRENA.-** Diru laguntza ezingo da hondakinen kudeaketari dagozkion tarifetan beherapenak egiteko erabili; aldiz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak edo haren sozietate instrumentala den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk diru laguntza erreserbatuko dute, kapitalizatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari egingo dio diru laguntzaren ordainketa, eta hark bere sozietate instrumentala den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUri eskualdatu ahal izango dio, ekarpen gisa; hala ere, ezingo ditu eskualdatu Kontsortzioak berak zuzenean gauzatuko dituen inbertsioetarako behar diren kopuruak. Horretarako, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak dagozkion aurrekontuko partidak sortzea onartuko du, eta kredituek sozietate horri eragingo diote, diru laguntza aipatu plangintzan zehaztutako azpiegiturak eraikitzeko erabilia izan dadin.

Diru laguntzaren xedea denez Gipuzkoako Foru Aldundiak bere egindako eta oraindik orain aldaketak izan dituen abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren 5. artikuluan berretsitako finantzaketako konpromisoak

**CONDICIONES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DIRECTA DE LA SUBVENCIÓN AL CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA PARA LA FINANCIACIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS EN ALTA QUE LE COMPETEN**

**PRIMERA.-** Las inversiones a financiar con esta subvención serán las ejecutadas por el Consorcio de Residuos o por su sociedad instrumental, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.

**SEGUNDA**.- La subvención no podrá ser aplicada a rebajas en las tarifas de la gestión de residuos, sino que se reservará por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y su sociedad instrumental, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U., para su capitalización.

**TERCERA**.- La Diputación Foral de Gipuzkoa hará efectivo el abono de la subvención al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, el cual podrá proceder al traspaso de la misma como aportación a su sociedad instrumental, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U., con la excepción de las cantidades precisas para las inversiones que vaya a ejecutar directamente el Consorcio. A tal fin, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa aprobará la creación de las partidas presupuestarias correspondientes afectando los créditos a dicha Sociedad, a fin de que la subvención se aplique a la construcción de las infraestructuras previstas en la planificación referenciada.

Dado que la subvención tiene su objeto en cumplir los compromisos de financiación asumidos por la Diputación Foral de Gipuzkoa y reiterados en el recientemente modificado artículo 5 de la Norma Foral

betetzea, Kontsortzioak, diru laguntzaren zertarakoa bermatze aldera, frogatuko du inbertsioak egin direla gauzatutako edo aurreikusitako azpiegituretan; edonola ere, emandako diru laguntzen guztizkoa ezingo da izan zuzenean edo zeharka gauzatutako azpiegituren edo aipatutako plangintzan zehaztutakoen kostuaren % 33 baino handiagoa izan. Ondorio horietarako, gauzatutako inbertsio gisa hartuko dira Garapen Iraunkorreko diputatuaren 2009ko ekainaren 25eko Foru Aginduaren bidez – Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatuaren 2011ko abenduaren 13ko Foru Aginduak aldatua, zeina, era berean, 2013ko urtarrilaren 30eko Foru Aginduak aldatu baitzuen– gaurdaino diruz lagundutakoak.

**LAUGARRENA.**- Diru laguntza bateragarria izango da, Estatuko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzaketen beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Diru laguntzaren zenbatekoak inoiz ez du gaindituko diruz lagundutako jarduketaren kostua beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

**BOSGARRENA.**- Diru laguntza gauzatu aurretik, memoria tekniko eta ekonomiko bat aurkeztu beharko da, egindako jarduketak eta lortutako emaitzak jasoko dituena, diru laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko; horretarako, fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan baliokideak izango diren edo eraginkortasun administratiboa duten frogagiriak aurkeztu beharko dira. Diru laguntzaren guztizkoa ordainduko da, aurrekontu krediturari dagokionez ezarritako mugara bitarte. Kontu justifikagarria aurkezteko gehieneko epea 2017ko abenduaren 31 izango da.

7/2008, de 23 de diciembre, a fin de garantizar el destino de la subvención, el Consorcio acreditará la existencia por su parte de inversiones en infraestructuras ejecutadas o previstas, de tal manera que el total de las subvenciones concedidas no supere el 33% del coste de las infraestructuras ejecutadas directa o indirectamente o previstas en la mencionada planificación. A estos efectos, entre las inversiones ejecutadas se considerarán las subvencionadas hasta la fecha mediante la Orden Foral del Diputado de Desarrollo Sostenible de 25 de junio de 2009, modificada por Orden Foral del Diputado de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de fecha 13 de diciembre de 2011, modificada a su vez, por Orden Foral de 30 de enero de 2013.

**CUARTA.**- La subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actuación subvencionada.

**QUINTA.**- La subvención se hará efectiva previa presentación de una memoria técnica y económica de las actuaciones realizadas y los resultados obtenidos que justifique el cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la misma, con presentación de facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, abonándose la totalidad de su importe hasta el límite del crédito presupuestario consignado. El plazo máximo para la presentación de la cuenta justificativa será el 31 de diciembre de 2017

**SEIGARRENA.-** Horrez gain, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta haren sozietate publikoa den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk betebehar hauek bete beharko dituzte:

a) Diru laguntza erabiltzea haren xedea dena betetzeko; hau da, izapidetutako eta/edo formalizatutako kontratuek eragindako gastuei aurre egitea, abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauan, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Plan Orokorraren aurrerapen agiria onartzen duenean, aurreikusita dauden eta dagokion lurralde plangintzan jasota edo jasotzeko bidean dauden azpiegiturak –hiri hondakinak kudeatzeko zerbitzu publikoa ematekoak– eraikitzeko behar diren inbertsioak egiteko.

b) Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak erabat publikoa izaten jarraitu beharko du, eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk, berriz, erakunde eskudunaren zuzeneko kudeaketako tresna izaten; edonola ere, zenbait azpiegitura egiteko, zeharkako kudeaketaren prozedura ere erabili ahal izango da.

c) Foru aldundi honi jakinaraztea, halakorik balitz, beste administrazio publiko batzuetatik edo erakunde publiko eta pribatu nazional edo nazioartekoetatik lortu diren eta foru agindu honen xede bera duten diru laguntzak edo bestelako laguntzak, bai eta diru laguntza ematerakoan kontuan izan diren gorabeheretan izandako edozein aldaketa ere.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiak egin beharreko egiaztapenak, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoan, ezarritako finantza

**SEXTA.-** El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y su sociedad pública, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U., deberán cumplir, además, las siguientes obligaciones:

a) Destinar la subvención al fin para el que ha sido concedida, esto es, hacer frente a los gastos derivados de los contratos tramitados y/o formalizados a efectos de llevar a cabo las inversiones necesarias para la construcción de las infraestructuras que presten el servicio público de gestión de residuos urbanos prevenidas en la Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el Documento de Progreso del PIGRUG, y contenidas o en proceso de incorporación a la planificación territorial correspondiente.

b) El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa deberá mantener su carácter íntegramente público y Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. deberá conservar su carácter de instrumento de gestión directa de la entidad competente, sin que sea obstáculo el que se acuda también al procedimiento de gestión indirecta para la construcción de algunas infraestructuras.

c) Comunicar a esta Diputación Foral la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, objeto de la presente Orden Foral, otorgadas por otras Administraciones Públicas o por entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales, así como la modificación de cualquier circunstancia que se hubiese tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

d) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por la Diputación Foral de Gipuzkoa, a las actuaciones de control financiero previstas en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen

kontroleko jarduketak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legedian ezarritako jarduketak egin daitezen onartzea, eta, beraz, diruz lagundutako jarduketen garapenari eta gauzatzeari buruz eskatzen zaion zernahi informazio osagarri ematea.

Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, facilitando cuanta información complementaria le sea solicitada en relación con el desarrollo y ejecución de las actuaciones subvencionadas.

e) 4 urtez gordetzea diru laguntza ematea eragin duen jarduera egin izanaren eta jasotako funtsak erabili izanaren frogagiriak. Epe hori aipatu justifikazioa aurkezteko epemuga amaitzen den unetik hasiko da kontatzen.

e) Conservar, durante un plazo de 4 años, los justificantes de la realización de la actividad que fundamente la concesión de la subvención, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la citada justificación.

f) Jasotako funtsak itzultzea, dokumentu honen seigarren baldintzan zehaztutako kasuetan.

f) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en la condición sexta del presente Documento.

g) Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan, eta haren garapenerako erregelamenduan –apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartua– zehazten diren betebehar guztiak betetzea.

g) Cumplir cuantas obligaciones se señalan en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

**ZAZPIGARRENA.-** Diru laguntzen ordainketetan jasotako kopuruak –osoki edo zati bat– itzuli beharko dira, proportzionaltasun printzipioa aplikatuz eta ordainketak egin direnetik sortutako berandutze interesekin, kasu hauetan:

**SÉPTIMA** - Procederá el reintegro, total o parcial, con aplicación del principio de proporcionalidad, de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento en que se hayan efectuado los pagos de la subvención en los siguientes supuestos:

a) Diru laguntza ematea eragin zuen xedea, seigarren baldintzaren a) atalean jasoa, ez betetzea.

a) Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida, recogida en el apartado a) de la condición sexta.

b) Kontsortzioaren izaera erabat publikoa mantentzeko betebeharra, seigarren baldintzaren b) atalean jasoa, ez betetzea.

b) Incumplimiento de la obligación de mantenimiento del carácter íntegramente público del Consorcio, prevista en el apartado b) de la condición sexta.

c) Seigarren baldintzaren c) atalean ezarritako betebeharra ez betetzea.

c) Incumplimiento de la obligación prevista en el apartado c) de la condición sexta.

d) Bigarren baldintzan ezarritako betebeharra ez betetzea.

d) Incumplimiento de la obligación contenida en la condición segunda.

e) Justifikazioaren betebeharra ez betetzea, edo justifikazioa behar adinakoa ez izatea.

e) Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente.

f) Egiaztapeneko edo finantza kontroleko jarduketen aurrean uzkur agertzea, aitzakiak edo trabak jartzea edo jarduketak egitea ez onartzea.

f) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero.

g) Eta, orokorrean, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan, diru laguntzak itzultzeko jasotako kasuetako bat gertatzen denean.

g) Y en general, cuando se dé alguno de los casos que para el reintegro de subvenciones señala el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público.

Diru laguntza itzultzen den kasuetan, oraindik ordaindu gabe dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea ere galduko da.

En los supuestos en los que proceda el reintegro, se producirá, asimismo, la pérdida del derecho al cobro de las cantidades que en su caso se hallaren pendientes de abono.

**ZORTZIGARRENA.-** Oinarri hauetan aurreikusitakoaz gain, honako hauek xedatutakoa bete beharko da: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta foru arau hori garatzeko Erregelamendua (2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartua).

**OCTAVA.-** Además de lo previsto en las presentes bases, serán de aplicación la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.